

Kare pittin batez bapo



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Negua da lurrari eta landareei karea emateko garaia. Ehundaka urtetako ohi-tura da karezearena. Kareharria karobian karetu, erre, eta kare horrekin karetu soro, baratze, belaze eta sagasti. Etxeak eta arbolak berak ere karezen ziren, azala karesnez edo latsun-urez edo kisu-gesalez margotuz. Horrek gaitzak eta izurriteak uxatzen zituen ukui-lutik eta etxetik, baita etxeari eusten zioten sagastietatik ere. Desinfektatzailerik bizkorra da karea, kisua, gatzina edo latsuna.

Ezkituko beste lan mordoxka ere egiten du. Karea deitzen dugunetik benetan interesgarria dena bere osagai bat da: kaltzioa (Ca^{2+}). Buztin-lurrak dantzan jartzen ditu. Hemengo klima hezeak eta buztinak lurra erabat azidotzera daramate. Horrek lurrean dauden jakien mugimendua moteltzen du, eta zenbaitetan baita eragotzi ere; eta landareek ezin eskuratu. Karea emateak beste musika bat dakarkio lurrari. Ura mugimendua eragiten du, lur moteletako itolarria arinduz. Materia organikoak deskonposatzen laguntzen du, eta sustrai gehiago sortzeko bidea ematen.



TOMATO HEADQUARTERS

pH-a igoz, buztinaren uztarria askatuz, kaltzioa bera eta beste jakiak errazago eskuratzen dituzte landareek bezala lurrean bizi diren mikroorganismoek ere. Hori gutxi balitz bezala, lurreko oreka hobetzen du, sustraiaren arnasketa pizten baitu. Sustraietako gaitzak (fusariosia, adibidez) eragiten dituzten zenbait onddoren mutiritasuna makurtzen du, erasoak ahulduz eta arriskua apalduz.

Ikusgarria izaten da, ez dagoelako edo egonagatik lurretik bera hartzeko zailtasunengatik, kaltzio faltan diren landareek hartzen duten figura. Tomatearena (*Solanum lycopersicum*) ezaguna da, nik ipurdi beltza deitzen diot: fruituaren azpiko aldean azalean barrura egiten

Ikusgarria izaten da, ez dagoelako edo egonagatik lurretik bera hartzeko zailtasunengatik, kaltzio faltan diren landareek hartzen duten figura.

duen beltzunea. Piper alean (*Capsicum annuum*) peseta gaitza: puntta usteltzea. Urazan (*Lactuca sativa*) buruaren erdian gehien hazten ari diren hosto gurienen ertza erretzea. Sagar alean (*Malus x domestica*) azalean pikor sartuak.

Karea beti aurretik eman behar da. Kaltea ikusi eta karea zabaltzea alferrik da. Oraindik ez da berandu. Kukuak jotzea baino hobea izango du buztinetan bizi den landareak kare pittin bat. ■



endanea
garden

943 64 17 10
www.endanea.com
Jaitzuria 40, Hondarribia

Gozatu udaberria

Sasoiko landareak mimos hazi ditugu gure baserrian udaberria kalitatezko loreez apain dezazun.






